

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

**DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL**

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 149.000 euro eman dizkie bederatzi tokiko erakunde eta ureztatzaileen komunitateri lubetak konpontzeak eragindako gastuak ordaintzeko

*Gobernuaren laguntzekin gastuen % 100 ordain daitezke.*

Lunes, 16 de diciembre de 2013

Nafarroako Gobernuak 149.015 euroko laguntzak eman dizkie bederatzi tokiko erakunde eta ureztatzaileen komunitateri euste-dikeak edo kaltetutako lubetak berehala eta atzerapenik gabe konpontzeko gastuak ordaintzeko. Kalteak urte honen lehen hiruhilekoan izandako euri-jasen ondoriozko ibaien ur-goraldiek eragin zituzten.



Nafarroako Erriberako zelaiak urak hartuta.

Arguedas, Buñuel, Cabanillas, Cárcar, Fontellas, Fustiñana eta Ribaforadako udalek, Cadreitako Ureztatzaileen Komunitateak eta Mosquerako Zelaiko Ureztapenen Sindikatuak jasoko dituzte laguntzak.

Kasu guztietan, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak emandako laguntzak aipatutako erakundeek egin eta bere gain hartutako inbertsioen % 100 dira.

Hala, José Javier Esparza kontseilariak egindako konpromisoa bete da, hau da, halako kalteak jasaten dituzten tokiko erakunde guztiek erantzun berbera jaso dezaten.

Gogorarazi beharrekoa da, Ebroko Ur Konfederazioak Nafarroan kaltetutako lubetak konpontzeko izandako atzerapena zela-eta, kontseilariak kaltetutako udal eta ureztatzaileen komunitateei konponketak euren kabuz egiteko eskatu zien kalte gehiago jasatea saihesteko. Nafarroako Gobernuak egindako inbertsioen % 50eko laguntzak emango zituela adierazi zuen. Kasu batzuetan, berehalako konponketa horiek erabakigarriak izan ziren ekaineko ur-goraldiek eragindako kalte handiagoak ekiditeko.

Ondoren, Nafarroako Gobernuak hainbat gestio egin zituen Nekazaritza, Elikagai eta Ingurumen Ministerioan eta, ondorioz, Ebroko Ur Konfederazioak Aragoiko eta Nafarroako erriberako mota horretako jarduera guztiak bere gain hartuko zituela iragarri zuen, baina dagoeneko konpondutakoak ez zituela ordainduko. Hori dela-eta, Landa Garapeneko,

Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak lan guzti-guztiak ordaintzea erabaki zuen, ez hasieran adierazi bezala % 50 bakarrik. Hala, erakunde guztiek tratu bera jasoko dute.

2013ko neguko eta udaberriko euriteek kaltetu zituzten landaguneetako azpiegiturei dagokienez, gobernu zentralarekin behar besteko gestioak gauzatu dira. Nafarroako Gobernuak eskatu dio berehala bete ditzatela hartutako konpromisoak eta onets ditzala dagozkien laguntzen deialdia. Kasu horretan, laguntzek kalteen % 50 bakarrik estaliko lukete.